Bizkaiko Foru Liburutegia eta irakurketa publikoa Bilbon: 1918-1966

Biblioteca Foral de Bizkaia y lectura pública en Bilbao: 1918-1966

The Foral Library of Biscay and public reading in Bilbao (1918-1966)

Mikel Zabala Montoya*

RESUMEN
LABURPENA
ABSTRACT

La Biblioteca Foral de Bizkaia, creada a partir de una colección extraordinaria y particular, se organizó con un doble objetivo: ofrecer un servicio público y disponer de un depósito patrimonial. A partir de los registros estadísticos de consultas y de lectores y lectoras, se analiza su importancia en cada tarea, así como su participación en las bibliotecas públicas de Bilbao en una época de profundos cambios en la lectura.

Ezohiko bilduma partikular batetik sortutako Bizkaiko Foru Liburutegia helburu bikoitzarekin antolatu zen: zerbitzu publikoa eskaintzea eta ondarearen gordailua izatea. Kontsulten eta irakurleen erregistro estatistikoetatik abiatuta, zeregin bakoitzean izandako garrantzia aztertzen da, eta baita Bilboko biblioteka publikoetan izandako partaidetza ere, irakurketan aldaketa sakonak izan ziren garaian.

The Foral Library of Biscay was formed from an outstanding private collection which became a public one with historic value. This article studies the scope of both facets (i.e., public and historic) by the analysis of statistical register of consults and users. At the same time, this paper analyzes the importance of this center in the context of the public libraries in Bilbao at a period of major changes in reading.

PALABRAS CLAVE
GAKO-HITZAK
KEY WORDS

Bibliotecas Provinciales, Historia de la lectura, Análisis de usuarios.
Biblioteka Probintzialak, Irakurketaren historia, Erabiltzaileen analisiak.
Provincial Libraries, History of reading, User studies.

* Bizkaiko Foru Liburutegia
mikel.zabala.montoya@bizkaia.eus

Fecha de recepción/Harrera data:08-04-2021
Fecha de aceptación/Onartze data: 29-06-2021

1. SARRERA

Bizkaiko Foru Liburutegia (aurrerantzean, BFL), lurralde horren Foru Aldundiak eratuta, Euskal Herriko politika eta kultura arloetan nabarmendutako Fidel de Sagarmínagaren biblioteka partikularraren 1894ko dohaintzari esker gauzatu zen[1]. Sagarmínagak bizitza osoan zehar hamabi mila liburuki inguruz osatutako bilduma sortu zuen eta bertan antzinako funtsak gailentzen ziren. Garaiko prentsak honela deskribatzen zuen aipatutako biblioteka: "*notable y digna de figurar entre las primeras por lo completa que es de obras de gran valía*"[2]. Harez geroztik, BFLk bere ibilbidea hasi zuen, astiro eta zailtasunez, leku-aldaketek, funtsen antolaketak, eta bildumaren deskribapen-tresnen prestaketak, besteak beste, baldintzatu zutena. Lehenbiziko urtetan toki desberdinetan lekututa, 1929an BFL Astarloa kalera mugitu zen (aldez aurreko kokapena izandako Foru Jauregiaren albora, alegia). Biblioteka Astarloa kaleko egoitza berean mantentzen da, oraindik ere, ia ehun urte geroago. BFL sortu zen bi helburu nagusi betetzeko: ikerketa-zentroa (hasierako bildumaren jatorrizko izaerari lotuta) eta herri-liburutegia izateko. Carmelo de Echegarayk, Euskal Probintzietako Kronikariak, hasierako dohaintza estreinako aldiz antolatu zuenak, honela deskribatzen zuen bilduma:

> la biblioteca se dividía en dos grandes secciones instaladas en locales separados, uno de libros de vulgarización y recreo, que formará la Biblioteca popular y servirá para toda clase de lectores y otra que custodiará las obras que hayan de servir a investigadores y especialistas[3]

Dohaintzaren ezaugarriei jarraiki, eta Echegarayren beraren proposamenarekin bat etorriz[4], azken atal honetako zatirik handiena euskal gaiei buruzko funtsek osatuko lukete (aurrerantzean, BFL espezializatuko litzateke diziplina horretan), eta lehenengoa, berriz, bildumaren gainerako materialaz gorpuztuko zen. Izan ere, bi atal horiek (Euskal Atala eta Atal Orokorra), oro har, etenik gabe mantendu dira gaur egun arte.

Hala ere, BFLren orientazio bikoitzari buruzko asmo-adierazpen horretatik harantzago (funtsen titulartasunean nahiz fundazio-dohaintzaren borondatean oinarritua)[5], herri-liburutegiak berehala egin

1 Fidel de Sagarmínaga Epalza (1830-1894), politikari, historialari eta legelari bilbotarra, Bilboko Alkate (1872) eta Bizkaiko Ahaldun Nagusi (1876) ere izan zen. Horrez gain, Euskal-Erria Elkartea (1879) sortu zuen. Eduki historikoko lan ezagunen egilea izanik -hala nola *El Gobierno y el régimen foral del Señorío de Vizcaya* (1892)- Historiako Errege Akademiako kide eta Bizkaiko Ohorezko Kronikari (1893) izendatu zuten.

2 *El Nervión,* 1894-III-21.

3 Clotilde Olaran Múgica: "Los retos de la Biblioteca Foral de Bizkaia ante la coyuntura bibliotecaria actual", *Bidebarrieta,* 5, 1999, 63. or.

4 Carmelo de Echegaray: "La Biblioteca de Sagarmínaga", *Euskal-Erria : revista bascongada*, 36, 1897, 481-487. eta 513-520. or.

5 Fidel de Sagarmínagaren liburutegiaren dohaintzaren azken klausulak honela zehazten zuen:

zuen atzera ikerketaren alde, eta aparteko balioa zuen bilduma baldintzarik onenetan kontserbatzea nagusitu zen, publikoaren etorrerak babes hori bermatzeko aukerak gainditu bezain laster. Agian BFLren funts gehienak ez ziren erakargarriegirik balizko erabiltzaile askorentzat (prestakuntza-liburu eguneratuen eta entretenimendu-liburuen urritasunagatik), baina 1929an eraikin berria, ondo lekututa, irekitzeak erakarpen handia eragin zuen. Horri Erdi Mailako Institutuaren hurbiltasuna gehitu behar; izan ere, ikastetxe horren irakasleek euren ikasleei BFLn sartzea gomendatu zieten, eta berehala beste irakurle batzuei eragozpenak sortu zizkieten[6]. BFLren gidaritzapean hogeita bost urteko ibilbide luzea zeraman Darío de Areitiok atzera egin zuen segidan, eta gaiaren inguruko ardura zuen Kultura Batzordearen aurrean proposamen bat aurkeztu zuen, *Reglas para evitar que la Biblioteca pueda convertirse en popular* izenburu adierazgarriarekin, berehalaxe onartu zena[7]. Bertan debekatzen zen hamazortzi urtetik behekoak sartzea, zentro ofizialetako ikasleak izan ezik, beti ere ikastetxeetako lanak egiteko -eginkizun hau egiaztagiriaz identifikatu behar izango litzateke. Are gehiago: handik aurrera, idazlan "*recreativas*" deitutakoak eta "*mero pasatiempo*" gisa sailkatutakoak erabiltzaileen eskura zeuden katalogoetatik ateratzeaz gain, soilik kontsultatu ahal izango lirateke, baldin eta azterketa historikoak edo kritikoak burutzeko izatekotan, eta liburuzainaren aurretiazko baimenaz[8]. Areitiok honela justifikatzen zuen arautegi berriaren proposamena:

> sin darse cuenta se está desnaturalizando seguramente el fin para el que se creó la Biblioteca […]. El número de lectores ha llegado a un promedio de cien y más, sirviéndose más de doscientas obras diarias.

Aipatutako kopuruak gehiegizkoak izanik ere (aurrerago egiaztatu ahal izango den bezala), azkenaldian liburutegiaren zerbitzuetan izandako hazkundea itzela izan zen, eta baita sortarazitako ondorio negatiboak ere, hala nola funtzionamendu-arauak betearazteko ezintasuna, eta gehiegikeriazko jokabideak ere bai:

5.ª Que, bien se establezca la librería en local exclusivamente destinado á ella, ó en el Archivo y Biblioteca de la Diputación, se ponga á disposición del público que desee consultar las obras de que se compone. Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa (BFAH), Bizkaiko Administrazio Atala (BAA), Gobernu eta Eliza Kontuak, AJ505/001.

6 *Biblioteca de la Excelentísima Diputación de Vizcaya* [Eskuizkribua] *: reclamaciones* [1929-1951] (BFL, Signatura: VMSS-98). Kexa bat 1931. urtearen amaieran aurkeztu zen, irakurketa-aretoan haur asko agertu zirela salatzen. Honen esanetan, "*en su mayoría desconocen la finalidad de esta biblioteca*" eta "*solicitan obras de Salgari, novelas de cine, de bandidos y otras por el estilo*". Jarraian, sarrera ahalbidetzea hamalau urtetik gorako erabiltzaileei soilik eskatzen zen.

7 BFAH, BAA, Hezkuntza, Kultura eta Turismoa, 33. karpeta (954. kutxa). Gai honen inguruko ondoko informazio guztia iturri honetatik hartuta dago; baita hurrengo aipuak ere.

8 Berezko araudiaren faltan, azken xedapen hori eta proposamen honen osagarri diren beste batzuk 1901eko urriaren 18ko Errege Dekretuaren bidez indarrean sartutako *Reglamento de las Bibliotecas Públicas del Estado* delakotik hartu ziren (37, 153, 160-165 eta 167. Artikuluetatik, hain zuzen ere).

> …el suscrito se ha preocupado que cesara la tolerancia que hasta la fecha se ha tenido para dar facilidades al público de entregar las obras nuevas hasta sin catalogar. Parece que esta disposición ha molestado a algunos lectores […].
> Si se expone una obra de Galdós, de Benavente o de Trueba, se pedirán todas, aun cuando no tengan marco adecuado en esta biblioteca. Mucho más cuando hay otras bibliotecas públicas que tienen estas obras. El peligro de esta orientación está en convertir en popular esta biblioteca […].
> En una biblioteca popular, el libro puede sustituirse fácilmente, pero un volumen raro o precioso es dificilísimo volver a adquirirlo.

Areitiok uste zuen erabiltzaile gehiegi zeudela, asmo onez, oniritzia eman ziolako zenbait katedradunen eskaerari, euren ikasleek lanak prestatzera BFLra joan ahal izateko. Baimen horrek azpijokoak eragin zituen, ikasleak askotan sartzen baitziren "*sin más pretensión que la de pasar el tiempo pidiendo cuentos o novelitas, de las pocas que existen*". Muturreko kasu batean, irakurle batek bost funts baino gehiago batera eskatu omen zituen.

Aurrekoaren ildo beretik, BFLren eskurapenek ikerkuntzarako lanak lehenesten zituzten, euskal gaiei buruzkoak batik bat -ez bakarrik, ordea. Edozelan ere, eduki orokorragoko *desiderata* batzuk baztertu ziren. Esate baterako, gerra ostean Bilboko Alkate izateaz gain[9], intelektual eta politikoa zen Joaquín de Zuazagoitiaren 1933eko eskaera, agortutako San Agustinen idazlan osoak BFLk eros zitzan, Kultura Batzordearen ezezkoa birritan jaso zuena[10]. Bestalde, urte batzuk lehenagotik, José María Salaverría idazleak lurraldeko hainbat erakunderi -besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundiari- ez zituztela Baroja, Unamuno eta beste batzuen lanak erosten (salatariarenak barne) leporatu zien, ikuspegi unibertsal bat baztertzen, tokiko orientabide murriztagarria inposatzeko[11]. Jakina: aipatutako bi adibide deigarri hauetan desberdintasun ideologiko eta politikoak azaleratzen ziren.

Kontuak kontu, BFLren orientabide hori irakurle guztiek ontzat hartu ez zutenez gero, Darío de Areitiok *Reglas para evitar…* izenburuko proposamena abian jarri baino aste batzuk lehenago, "*asiduo lector"* goitizenaz sinatu zuen erabiltzaile batek honako erreklamazio hau aurkeztu zuen:

9 Bidebarrietako Udal Liburutegia inauguratu zenean, Zuazagoitia Bilboko Udalbatzaren burua zen.

10 *Biblioteca de la Excelentísima Diputación de Vizcaya* [Eskuizkribua] : *pedido de obras [1929-1935]* (BFL, Signatura: VMSS-97). Iradokizunen erregistro hau 1935ean eten egin zen.

11 *El Pueblo Vasco*, 1917-I-10. Erreferentziaren jatorria hauxe da: Álvaro Chapa: *La vida cultural de la villa de Bilbao, 1917-1936*, Bilbo, Udala, 1989, 51-52. or.

1. Que todas las obras de los grandes escritores extranjeros, V. Hugo, Goethe, Rousseau, etc. etc. de las cuales en sus respectivas lenguas hay varios ejemplares en esta Biblioteca, que de nada o casi nada nos sirven, puesto que no las lee el 1 por 1.000 de los lectores, sean adquiridas en español, única manera de que puedan estar al alcance de todos.
2. La adquisición de la colección de obras de crítica, pedagogía y literatura de D. Manuel B. Cossío, así como las teatrales de D. Jacinto Benavente, ambos verdaderas glorias nacionales cuyas obras han sido traducidas a todos los idiomas y de las que por rara excepción no existe un solo ejemplar en esta Biblioteca[12].

BFLrentzat finkatu nahi zuen izaera tinkotasunez defendatzen, Darío de Areitiok argi eta garbi erantzun zion kexari:

> Esta Biblioteca no tiene carácter popular, sino de investigación; por tanto las obras han de leerse en su propia lengua. Las obras de Benavente las puede leer en cualquiera de las bibliotecas populares.

Bestalde, BFLren bilduma osoa bertako irakurgeletan kontsultatzera behartu zen, etxeko mailegurik gabe, nahiz eta, 1941ean, norbaitek halako zerbitzua martxan jartzea eskatu zuen (arrakastarik gabe, ordea), BFLra joateko zituen oztopoak argudiatuz[13]. Salbuespen bakarra[14] Maisuaren Liburutegi Ibiltaria izan zen, 1923/25 inguruan eta Hezkuntzako Ikuskaritzari esker, BFLn sortu zen, ikastetxeetako irakasleei zuzenduta, euren prestakuntza hobetzeko. Biblioteka Ibiltaria bi mila inguru izenburuz osatutako bilduma zen, eta lehenbiziko urteetan arrakasta nabarmena izan zuen[15].

Urte batzuk geroago, 1958an, Carlos González Echegarayk -oraintsu BFLan izendatutako artxibozain-liburuzainak eta Carmelo de Echegarayren lobak- zera adierazten zuen:

12 *Biblioteca de la Excelentísima Diputación de Vizcaya* [Eskuizkribua] : *pedido de obras [1929-1935]* (BFL, Signatura: VMSS-97).

13 BFAH, BAA, Hezkuntza, Kultura eta Turismoa, 33. karpeta (954. Kutxa).

14 1962/63 urteetako irakurleen erregistro-liburu batean ezohiko mailegu batzuk ageri dira: 1963ko apirilaren 23an, BFLtik Gobernu Zibilerako hiztegi bat atera zen, egun batzuk geroago itzuli zena. Hurrengo hilabetean, beste erabiltzaile batek, Pedro Zubiak idatzitako *Escuelas de barriada* izenburuko lana eraman zuen "*para cuatro o cinco días*". Dena dela, aipatutako azken kasu honetan, mailegua liburutegiko ikertzaileen bulego batera eramateko izan zitekeela ezin momentuz baztertu, hipotetikoki erabiltzen ari ziren agiritegiaren paper-sorten laguntza gisa -BFLk eta BFAHk Astarloa kaleko instalazioak partekatzen zituzten eta. Gainera, liburu hori BFLren eraikin berean lekututako Foru Inprimategian bota zela kontuan hartu behar da. [*Biblioteca de la Excelentísima Diputación de Vizcaya*] [Eskuizkribua]: *registro de lectores* [*1962-1963*] (BFL, Signatura: VMSS-99). Honelako jokabideak noiz, nola eta zergatik hasi ziren ezin jakin, aurreko datetarako iturririk ez egoteagatik.

15 1926ko urteko 225 kontsultak 600 izan ziren 1930an (Chapa: *Vida*, 103. or.).

> En la Biblioteca, continúa la afluencia normal de lectores, cuyos resúmenes estadísticos tienen más interés cualitativo que cuantitativo, ya que no se trata de una biblioteca popular, sino de biblioteca de investigación.[16]

Esanak esan, eta orain arte azaldutakoa baztertu gabe, ondorengo orrialdeetan irakurle arruntaren ikuspegitik BFLren eginkizuna aztertzen ahaleginduko gara: azken batez, erabiltzaileak egotea edozein bibliotekaren existentzia justifikatzeko gakoa da. Zein eragin izan zuen BFLk Bilboko irakurketa publikoaren testuinguruan? Nolakoak izan ziren BFL eta bere irakurleen arteko harremanak? Nola aldatu zen erabiltzaileen kopurua BFLn denboran zehar? Zer irakurtzen zen?

Aurreko galderei buruzko argitasunik bilatzeko, González Echegarayk gutxietsitako iturri estatistiko bat erabili da. Erregistro horiek *Boletín de la estadística municipal de Bilbao* izenburuko aldizkarian gordetzen dira. Iturri hori Bilboko Udalak argitaratzen zuen, eta BFLren 1917 eta 1968 bitarteko[17] kontsulten eta erabiltzaileen datuak biltzen zituen, hilero, 1940tik aurrera, ordea, hiru hilean behin. Hala ere, denbora-tarte horretan zehar BFLri buruzko informazioan hutsunerik badagoenez gero, distortsiorik gerta ez dadin[18], datuak urteka multzokatuta aurkezten dira, hileko batezbestekoetan.

Muga kronologikoak iturriak berak behartutakoak badira ere, liburutegi honen oinarrizko mugarri batzuk hautemateko erabilgarriak izan daitezke, hala nola, publikoaren aurreko zerbitzuen hasiera (1907), Foru Jauregiko sotoetatik Astarloa kaleko eraikin berrirako lekualdaketa (1929), gerraren eragina (1936/37) edo Liburutegien Zentro Koordinatzailea (LZK) abian jartzearen ondorioak (1956)[19].

Bestalde, *Boletín de la estadística municipal de Bilbao* delakoak BFLren erregistroak ez ezik, Hiribilduko beste biblioteka publiko garaikide batzuetakoak ere ezagutarazten ditu[20]:

16 Carlos González Echegaray: "Archivo y Biblioteca Provincial", *Vizcaya,* 10, 1958ko lehen seihilekoa, 18-19. or.

17 Argitalpen hau ez zen kaleratu 1945ean eta 1947an soilik. Aldizkaria Bilboko Udal Artxiboaren webgunean dago: https://www.bilbao.eus/cs/Satellite/archivosMunicipales/Consulta-de-Boletines-Estadisticos/eu/1272990914934/Contenido (2021eko martxoaren 4a).

18 Hauexek dira hutsuneak: 1921 (9 hilabetetako datuak baino ez), 1922 (daturik ez), 1923 (11 hilabetetako datuak), 1925 (11 hilabetekoak ere), 1926 (8), 1929 (9), 1936 (6), 1937 (daturik ez), 1938 (8), 1956 (9), 1960 (9), 1961 (9), 1963 (9), 1965 (6), 1966 (6).

19 Bizkaian, Hezkuntza Ministerioak sortu zuen LZK, 1954ko urriaren 7ko Aginduaren bidez, bertako Foru Aldundiak hala eskatuta. Dena dela, 1956ko uztailera arte ez zen lanean hasi: une hartan Artxibozain, Liburuzain eta Arkeologoen Goi Mailako Kidea zen Carlos González Echegaray izendatu zuten bere zuzendaritza teknikoaz arduratzeko.

20 Garai hartan Bilbon aparteko beste liburutegi batzuk ere bazirela ez da ahaztu behar, hala nola Deustuko Unibertsitatearena edo *Sociedad Bilbaina* delakoarena, baina euren izaera pribatuaren ondorioz, hemen ezarritako helburuetatik kanpo gelditzen dira.

a) Institutu orokor eta teknikoaren liburutegi probintziala[21].

b) Bilboko Udaletxeko liburutegia[22].

c) Pérez Galdosen herri-biblioteka -tarteka, San Frantziskokoa ere deitutakoa[23].

d) Unamunoren herri-biblioteka[24].

e) Arte eta lanbideen eskolako herri-biblioteka[25].

Aurreko liburutegien datuekin batera, berrogeiko hamarkadatik aurrera, Irakurgai egokien bibliotekaren[26] erregistroak agertzen hasi ziren. Gainera, hurrengo hamarraldian Kultura hispanikoaren euskal erakundearen herri-liburutegiarenak[27] eta 1956an inauguratutako Bidebarrietako Udal Bibliotekarenak ere gehitu ziren. Azkenik, hirurogeiko hamarkadan beste zentroren bat tartekatu zen zerrendan (Erandioko liburutegi publikoa, esate baterako), eta batzuetan LZKren bibliobusaren datuak ere.

Kontutan izateko ohartarazpena: zenbait arrazoi tarteko (oporrak, lanak, etab.), aipatutako biblioteka guztiek ez zituzten euren datuak sistematikoki ezagutarazi aztergai izandako aldi osoan zehar. Landutako azken urteetan, batik bat, liburutegi batzuek erregistroak etengabeko erregulartasunez igorri ez zituztenez gero, Bilbo osoko datuen eta BFLkoen arteko erlazioa azken honen aldekoa izan daiteke, nonbait. Hala eta guztiz ere, honek ez du joera orokorren baliogarritasuna deuseztatzen.

21 Erdi Mailako Institutuarena, alegia. XIX. mendearen bukaeran sortzen hasi zen, Fernando Miegek, bertako zuzendariak, bultzatuta. Garai hartan -ikastetxearekin batera- egungo Unamuno Plazan kokatzen zen. 1927tik aurrera, berriz (aurreko eraikina eraitsi ostean), BFLren alboan.

22 Aspaldiko zerbitzua zen, Udal Artxibategiari lotutakoekin bat eginik eskaintzen zena, eta hogeita hamarreko hamarkadara arte iraun zuen.

23 Liburutegiaren izena eta bere kokalekua, hurrenez hurren. 1910ean Bilboko Udalak sortuta, 1927tik aurrera, mailegu-zerbitzua martxan jarri zuen, Hiribilduko herri-biblioteken artean aitzindaria izanik. 4.100 liburuki baino gehiagoko bilduma zeukan 1930ean.

24 Bilboko Udalaren ekimenez eratuta, 1916an Barroeta Aldamar kalean kokatu zen. Gerra Zibila tarteko, desagertu zen sute baten ondorioz. 1930ean, 2.500 liburuki inguruko bilduma zuen


25 Atxuriko eraikinean kokatuta 1911tik, José María Basterra, ikastetxearen zuzendariaren ekimenez, nonbait.

26 Liburutegi hau Remigio Vilariño jesuitak sortu zuen 1915ean, Bilboko erdigunean, Eguían -hau da, egun, Marqués del Puerto deitzen den kalean- kultura katolikoa zabaltzeko asmoz. Hasieratik bere funtsak etxeratzeko aukera ematen bazuen ere, horren ordainez urteko kuota pagatu behar zen. Beraz, erabilpen publikorako sortu arren, *stricto sensu*, zentro pribatutzat har daiteke. Bere bilduma 12.000 ale ingurukoa zen 1930ean.

27 1953ko azaroaren 30eko Ministerio Aginduaren bidez sortu zen, Colón de Larreategui kalean, hogeita lau irakurketa-postu eta 2.800 liburukiz osatuta. Lehenengo bost urteetan, batez beste, urteko 3.300 kontsulta izan zituen (LZK: *Diez años de actividades (1956-1966)*, Bilbo, Bizkaiko Aldundia, 1968, 37-38 or.).

2. LIBURUTEGIAREN ERABILERA

Ondoko 1. Grafikoan BFLren kontsultak agertzen dira, aztergai dugun garaian[28]. Datu hauetatik abiatuta, ohartarazpen batzuk aipa daitezke:



1. Grafikoa: 1918-1964 bitarteko BFLren kontsulta kopuruak. Hilabeteko batezbestekoak

BFLk kontsulta kopuru apalak izan zituen lehenengo urteetan, nahiz eta 1928az geroztik -Astarloa kaleko egoitza inauguratu aurreko urtetik, alegia- asko handitu ziren, eta, seguruenik, horren ondorioz, hasierako kokalekua Foru Jauregian ezin luzatu. Biblioteka lekuz aldatzeko proiektua urte batzuk lehenago hasi zen: 1919an, Kultura Batzordeak Agiritegiarentzat zein Liburutegiarentzako instalazio berriak bilatzeko beharra planteatu zuen, erabiltzaileen sarbidea errazteko; bi urte geroago, berriz, Aldundiaren Osoko Bilkurak azpiegitura hori eraikitzea erabaki zuen. Gainera, BFL Foru Jauregian kokatzeak beste hutsune batzuk zituen: proiektu berriaren ardura zuen Juan Carlos de Guerra arkitektoaren hitzetan, biblioteka leku ezkutu batean zegoen, eta bertan, "*a falta de estantes se apilan los libros y documentos en el santo suelo"*[29].

28 1965 eta 1966an BFLko urteko bi erregistro daude, baina urte horietako datuak osoak direnik ez dago argi. Denbora-tarte horretan izandako ezohiko hazkundearen arrazoia estatistikak sei hilabetean behin bidaltzeagatik izan zitekeen, hiru hilabetero egin beharrean. Beraz, data horietako datuak baztertu dira, distortsiorik edo okerreko interpretaziorik saihesteko.

29 Juan Carlos de Guerra: "La Biblioteca de Vizcaya", *Propiedad y construcción*, 3, 16 znbk., 1924-III-31, 1. or.

Kontsulten kopuruaren hazkunde hori bizkortu egin zen hurrengo urteetan[30] eta, hogeita hamarreko hamarkadan, hileko bi mila kontsulta inguru egon zen. Datu hauen aurrean, Darío de Areitiok 1932an hartutako neurriek, agian, gehiegikeria batzuk bertan behera uzteko balio izan zutela ondoriozta daiteke, eta baita adingabekoen sarrera saihesteko ere, baina inola ere ez zutela geldiarazi hamarkada horretan gero eta irakurle gehiago bertaratzeko joera, gerra lehertu arte eten egingo ez zena. Izan ere, hamarraldi batzuk igaroko lirateke BFLk guda aurreko kopuruak berreskuratu ahal izan aurretik. Ezin ukatu, ordea, denboraldi horretan, erabiltzaile gehienak funtsa berberak kontsultatzera azaltzen zirela egunez egun (baita asteetan ere). Hortaz, erregistro estatistikoetan euren datuak sarritan errepikatzen ziren, batzuetan egun berean ere (kontsulta bera goizez zein arratsaldez egitekotan). Mailegu eta erreprografia-zerbitzuen gabeziei aurre egin ahal izateko, hainbat lan osorik -agian ez bakarrik literaturazkoak- irakurgelan leitzen ziren, bai eta oharrak eskuz hartzen denbora luze eman behar ere.

Aztergai dugun garaitik kanpo, denborak aurrera egin ahala, izandako bilakabidea zirriborratzeko, hona hemen 1975 baino geroagoko datu estatistiko batzuk:


	BFLren kontsultak
1979	3.956
1980	4.167
1981	4.636

1. Taula: 1979-1981 bitarteko BFLren kontsulta kopuruak. Hilabeteko batezbestekoak[31].

Ez dirudi erraza aldez aurretik aurkeztutako kopuru horiek antzeko beste biblioteka batzuetakoekin alderatzea, batzuen eta besteen arteko desberdintasunak tarteko, aldagai ugariren arabera, bai liburutegiari dagokionez (tipologia, bildumaren tamaina eta ezaugarriak, funtzionamendu-araudia, zerbitzuak, etab.), baita estalitako biztanleriari ere (biztanle-kopurua, alfabetatze-mailak, etab.). BFLren eta Bilboko gainerako irakurketa publikoaren zentroen arteko proportzioak, ordea, kontsultei buruz, eta azterlanaren xede den eremu kronologikoan, 2. Grafikoan jasotzen da, ehunenekotan adierazita:

30 1929ko beherakadaren arrazoia zera da: funtsak lekuz aldatu ahal izateko, BFL hiru hilabetez itxita egon zela.

31 Iturria: Estatuko Liburutegi Publikoak*: Memoria del año 1981,* [Madril], Liburutegien Zuzendariordetza Nagusia, Biblioteken Azterlanen Atala, [1982].



2. Grafikoa: 1918-1964 bitarteko BFLren kontsulten eta Bilboko irakurketa publikoaren beste zentroen arteko erlazioa. Hilabeteko batezbestekoak.

Hogeita hamarreko hamarraldira arte BFLk Bilboko irakurketa-zentro guztien artean betetako eginkizuna ia hutsala izanik ere, hamarkada horretatik aurrera, aldiz, egoera aldatu zen. Astarloa kaleko instalazioak irekiz geroztik, BFLk kopuru gordinetan izan zuen igoera ere nabarmentzen da Bilboko liburutegien artean, Hiribilduko irakurketa ororen ia erdia biltzen. Izan ere, badirudi gerraosteko lehen urteetan, BFL irakurketa publikorako azken babesleku bihurtu zela, beste biblioteka batzuek estualdi larriak pairatzen zituzten garaian. Batez ere, Udalarenak.

Udal liburutegiak zein egoeratan zeuden ezagututa, 1940an, Bilboko Udalak udalarena eta BFL bateratzeko aukera planteatu zuen, nahiz eta -azkenik- Lorenzo Hurtado de Saracho Alkateordeak bultzatutako ekimenak ez zuen aurrera egin[32]. Bi urte geroago, proposamen hau erabat baztertu zen, Hiribilduko Udalak *El Sitio* elkartearen jauregia (Bidebarrieta kalean kokatuta, honen izena hartuko zuelarik) bere biblioteka nagusiaren egoitza bihurtzeko proiektua abian jarri baitzuen, 1956an ateak irekiko zituena[33].


Azkeneko data hori baino lehen ere, San Frantziskoko herri-liburutegiaren zein Irakurgai egokien bibliotekaren bizitasunari esker,

32 Bilboko Udal Artxiboa (AMB), ES 48020 AMB-BUA 419664. Bilboko Udalaren Osoko Bilkuraren aktak (1940ko irailaren 6a). Ez zen lehenengo aldia bi liburutegi horiek bateratzeko ahalegina, baina oraingo honetan arrazoiak ez datoz bat aurreko urteetan azaldutakoarekin. 1917an, euskal kultura bultzatzeko, hainbat ekimenen testuinguruan, Bizkaiko Ahaldun Nagusia zen Ramón de la Sotak, Manu Eguileor Diputatuarekin batera, bi liburutegiak bateratzea proposatu zuen euskal liburutegi orokor handi bat eratzeko (*Bizkaiko Aldizkari Ofiziala*, 1917-XI-16). BFL bezala, Bilboko Udalarena ere ezohiko bilduma partikular batetik sortu zen, kasu honetan Camilo de Villabasoren bibliotekatik.

33 Clotilde Olaran Múgica eta José Manuel González Vesga: *El Consulado de Bilbao: noticias históricas y bibliográficas en torno a su archivo*, Zarautz, Manuel de Larramendi Institutu Bibliografikoa, 2012, 157-170 or.

irakurketa publikoa berpizten hasi zen, hala, BFLk bere portzentaje osoaren ehuneko hogeira murrizten, mailegu-zerbitzua eskaintzen zuten beste bibliotekekin lehiatu ezinean.

BFLren erabileraren bilakaera berresteko edo, behar izanez gero, zehazteko, jarraian (3. Grafikoan) erabiltzaileen hilabeteko batezbestekoak aurkezten dira:



3. Grafikoa: 1918-1944 bitarteko BFLren erabiltzaile kopuruak. Hilabeteko batezbestekoak.

Tamalez, ezin da BFLren erabiltzaile kopuruaren bilakaera ezagutu 1944tik aurrera, data horretatik aurrera datu hori ez baita *Boletín de la estadística municipal de Bilbao* delakoan agertzen. Nolanahi ere, bildumaren erabilerari buruzko datuekin zuzenean lotuta, hemen ere hazkunde izugarria izan zen gerraren bezperan (eta 1932an hartutako neurri murriztatzaileen eragina ez da antzematen), urte horietan erregistro altuenak lortzeko. Izan ere, luzaro itxaron behar izango zen kopuru horiek gainditzeko, hirurogeiko hamarkadako BFLren erregistro-liburu batetan egiaztatzen den bezala:

	BFLren erabiltzaileak
1962ko abendua	1.594
1963ko urtarrila	2.766
1963ko otsaila	2.394
1963ko martxoa	2.172
1963ko apirila	2.431
1963ko maiatza34	2.418

2. Taula: 1962/63 urtetako BFLko erabiltzaileen kopuruak. Hilabeteko batezbestekoak[35]

34 Hil honen 22ra arteko erabiltzaileen datuak besterik ez dira agertzen.

35 Iturria: *[Biblioteca de la Excelentísima Diputación de Vizcaya]* [Eskuizkribua] : *registro*

Biblioteka batzuen eta besteen arteko kontsulten zenbakien konparaketen inguruan aldez aurretik adierazitako zalantza berdinak azalera daitezke, berriz ere, euren erabiltzaileak aztertzerakoan**.** Hortaz, adibide gisa, ondoko taula aurkezten da, Estatu osoko ehunen bat udal herri-liburutegiren erabiltzaile kopuruaren ehunekotan adierazitako *ratioarekin*, udalerri horietako biztanleri kopuru osoarekin alderatuta, eta adierazle bera Bilboko herri-biblioteken kasuetan (BFL kenduta, bere izaera desberdinagatik):

	Estatuko udal liburutegiak	Bilboko herri-liburutegiak
1934	35,12	34,15
1935	29,83	33,15
1936	18,38	23,32

3. Taula: 1934/36 bitarteko biblioteka publikoen erabiltzaileen kopuru eta udalerriko biztanleria osoaren arteko *ratioak*. Datuak ehunenekotan[36].

Aurreko taularen esanetara, Bilboko datuak Estatuko beste udal-liburutegietakoekin pareka daitezke, nonbait. Esanak esan, Hiribilduaren kopuruak udal-liburutegiak ez diren beste zentro publikoetakoekin (ikastetxe batzuetakoekin, alegia) areagotzen direla erreparatu behar da. Gainera, Bilboren izaera hiritarra eta bere alfabetatze-mailak ere kontuan hartzekoak dira, gainerako herri-liburutegien udalerrietako profil sozialarekin alderatzerakoan (Bilbo baino biztanleri gutxiagokoak, kasu gehienetan). Hala ere, aurreko taularen erregistroak Kataluniako Mankomunitateko liburutegietatik urrun daude: bertan, hamarkada bat lehenago, euren zentroetara egunero zortzi pertsona inguru bertaratzen ziren mila biztanleko[37]. Bilbon, ordea, ez zen iritsi egunero bisitari bakar batera mila biztanleko.

Hurrengo taulan Bilboko biztanleriaren eta analfabetismo-mailaren bilakaera aurkezten da, irakurketa publikoko espazioen erabilerarekin alderatuta:

	Bilboko biztanleria	Analfabetismoa (%)	Irakurketa publikoaren kontsultak
1940	196.481	5,88	2.326
1950	216.417	4,15	5.472
1960	294.174	3,45	8.469

4. Taula: 1940/60 bitarteko analfabetismo eta irakurketa publikoa Bilbon[38].

de lectores [1962-1963] (BFL, Signatura: VMSS-99). 1981ean, hilabeteko batezbestekoa 4.043 erabiltzaile izatera iritsi zen (Estatuko Liburutegi Publikoak*: Memoria*, 9. or.).

36 Iturria: Ana Martínez Rus: *La política del libro sobre la Segunda República: socialización de la lectura*, Madril, UCM, 2001, 587-604. or. (https://eprints.ucm.es/id/eprint/4862/1/T25567.pdf, 2021eko martxoaren 4a).

37 Teresa Mañá: "Les biblioteques populars de la Mancomunitat: un projecte polític i un projecte bibliotecari", *Cercles: revista d'història cultural*, 13, 2010, 56. or. (https://www.raco.cat/index.php/Cercles/article/view/211438/281628, 2021eko martxoaren 4a).

38 Iturria: José María Beascoechea Gangoiti [et al.]: *La consolidación de la metrópoli de la*

Aurreko datetarako, Bizkaia osoko erregistroak erabiltzen dira, Bilboko datu konkretuen faltan. Dena dela, Hiribilduko analfabetismo-mailak lurralde osokoak baino txikiagoak omen ziren, eta baita Estatuko batezbestekoak baino baxuagoak ere (Kataluniakoak izan ezik)[39]:

	Bizkaiko analfabetismoa (%)
1910	46,7
1920	40,7
1930	27,3

5. Taula: 1910/30 bitarteko analfabetismoa Bizkaian[40].

Aurreko datuetatik abiatuta, gogoan hartzekoa zera da: analfabetismo-mailak aztergai den aldian izan zuen etengabeko jaitsiera ez zela guztiz bat etorri irakurketa publikoko zentroen erabileran izandako joerarekin. Biztanleriaren bizi-baldintzak, kultura-giroa edo administrazio publikoen kultura-politikak, besteak beste, izan ziren bi aldagai horien bilakaera bateratua eragotzi zuten baldintzatzaile batzuk.

Orain arte ikusitako estatistika-erregistroek, alabaina, biblioteka batzuen eta besteen erabilpena sexuaren araberako irakurleen arteko banaketa ez dute islatzen. Eta estatistikaren ezean, *Vizcaya a la mano* garaiko almanaka ezagunean jasotako testigantzara jo dugu:

> ¿Quién lee más entre nosotros, el hombre o la mujer? (…)
> a) En las bibliotecas populares con lectura en el salón y sin facultad para retirar los libros a domicilio, el zig-zagueo de la estadística nos da una mujer lectora por cada 20 hombres.
> b) En cambio, en las bibliotecas populares, en las que el fin primordial es la llevada a [sic] libros a casa y la lectura de asiento el secundario, la gráfica da la mayoría a la mujer en la relación de diez lectoras por cada hombre.[41]

Argudio hau egia izanez gero[42], BFLren erabiltzaileen eta maileguzerbitzua eskaintzen zuten Bilboko beste liburutegi batzuen gizarte-profilaren arteko aldea nabarmena litzateke. Behin berriro, tamalez, informazio faltagatik, Hiribilduko gainerako irakurketa publikoko

Ría de Bilbao, Bilbo, Fundación BBVA, 2009, 1 lib., 458. or.

39 1920an, Kataluniako batezbesteko analfabetismoa %29koa zen. Jordi Llobet Domènech: *Lecture i biblioteques populars : model de col.lecció i lectura a les biblioteques populars de la Mancomunitat de Catalunya: 1918-1922*, Bartzelona, Unibertsitatea, 2008, 340. or. (https://www.tdx.cat/bitstream/handle/10803/768/11.JLD_BIBLIOGRAFIA.pdf?sequence=11&isAllowed=y, 2021eko martxoaren 4a).

40 Iturria: Pauli Davila Balsera [et al.]. "Los procesos de alfabetizacion y escolarizacion en Euskal Herria, 1860-1990", *Cuadernos de Sección. Educación*, 7, 1994, 77-81. or. (http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/ikas/07/07063099.pdf, 2021eko martxoaren 4a).

41 Santiago de Urcelay: "Las Bibliotecas públicas en Vizcaya," in Valentín Reparaz Olagüe (arg.): *Vizcaya a la mano,* Bilbo, Bilbao Aldizkaria, 1930, 24. or.

42 Garaiko beste testuinguruetako antzeko banaketetarako: Martínez Rus: *Política*, 179-184. or.

zentroen analisia alde batera utzi behar izango da, garaiko lekukotasun bakarrera jotzeko, 1929 eta 1935 bitarteko BFLren *desiderata* delako erregistrora, alegia[43]. Bertan horrela islatzen da neurri handi batetan, nahiz eta, berez, iturri horren datuak ezin diren behin betikotzat jo. Hala ere, eta *Vizcaya a la mano* almanakan adierazitako proportzioa gehiegizkoa dirudien arren, BFLko erabiltzaile gehienak gizonezkoak zirela ezin ukatu, hamarkada batzuk geroago egiazta daitekeen bezala:

	Gizonezkoak	Emakumezkoak
1962ko abendua[44]	91,84	8,16
1963ko urtarrila	86,53	13,47
1963ko otsaila	86,55	13,45
1963ko martxoa	88,31	11,69
1963ko apirila	85,41	14,59
1963ko maiatza[45]	84,78	15,22

6. Taula: 1962/63 urtetako BFLren erabiltzaileen banaketa sexuaren arabera. Datuak ehunenekotan[46].

3. IRAKURGAIAK

Aztergai dugun aldian BFLren funtsen erabilera jorratzea komeni da, unean-uneko bere funtzionaltasuna ezagutzeko. Bilboko gainerako irakurketa publikoko zentroei buruzko analisietan, ordea, ez gara sartuko, horiek guztiak *sensu lato* herri-liburutegiak izateagatik, eta, BFLn ez bezala, haien funtsen ezaugarriek nekez onartzen dituztelako mota honetako biblioteketan ohikoak ez diren beste erabilera batzuk.


BFLren izaera bikoitzatik abiatuta (hau da, biblioteka publiko eta ikerketa-zentroarena), bietako bakoitzak duen garrantzia baloratzeko, bi atalen erabilera konparatu da, Atal Orokorra eta Euskal Atala. Euren estatistikak 4. eta 5. Grafikoetan irudikatzen dira. Zoritxarrez, erregistro horien aukerak ere mugatuak dira; izan ere, 1929tik aurrera ez zirelako atalaz atal irakurleak bereizi, eta 1932an utzi egin ziotelako atal bakoitzaren funtsetako kontsultak desberdintzeari.

43 *Biblioteca de la Excelentísima Diputación de Vizcaya* [Eskuizkribua] : *pedido de obras [1929-1935]* (BFL, Signatura: VMSS-97).


44 Abenduaren 5etik aurrera baino ez dago informaziorik.

45 Maiatzaren 22ra arte soilik.

46 Iturria: [*Biblioteca de la Excelentísima Diputación de Vizcaya*] [Eskuizkribua]: *registro de lectores* [*1962-1963*] (BFL, Signatura: VMSS-99). Sexuen araberako banaketari buruzko datu hauek ez dituzte jasotzen erabiltzaileen erregistro guzti-guztiak, ez baita beti posible izaten pertsonaren sexua ezagutzea: batzuetan izen laburtuak daude, edo inoiz izen abizenak enpresaren datuekin ordezkatu ziren.



4. Grafikoa: 1917-1929 bitarteko BFLren Atal Orokorra eta Euskal Atalaren irakurle kopuruen arteko erlazioa. Hilabeteko batezbestekoak.




5. Grafikoa: 1917-1932 bitarteko BFLren Atal Orokorra eta Euskal Atalaren kontsulta kopuruen arteko erlazioa. Hilabeteko batezbestekoak.

Goiko datuen esanetara Atal Orokorrak Euskal Atalak baino zertxobait zirkulazio-maila altuagoa zuela ondoriozta daiteke. Jakina: halako joera logikoa da, ikerketa-jarduerez ari baikara, gutxiengo bati dagozkionak. Ez da ikusten, ordea, joera garbirik erregistratutako urte gutxietan, beste ondoriorik proposatu ahal izateko.

Aurreko iturriaren denbora-mugak gainditzen saiatzeko asmoz, lehenago aipatutako hirurogeiko hamarkadaren hasierako erregistro-

liburua aztertu da, berriz ere[47]. Liburu honek dagokigun aldiaren amaierako argazkia eskainiko digu (osatu gabeko irudia, noski), baina konklusiorik erdiesteko adierazgarria izan daitekeena (6. Grafikoa):



6. Grafikoa: 1962/63 urtetako BFLren Atal Orokorra eta Euskal Atalaren kontsulta kopuruen arteko erlazioa. Hilabeteko batezbestekoak


Hirurogeiko hamarkadaren hasieran, badirudi Euskal Atalaren jarduera askoz murriztu zela, Atal Orokorrarenaren aldean. Egia esan, ikerketek, oro har, behera egin zuten, beste irakurketa-mota batzuen alde. Izan ere, XIX. mendeko edo data horren aurreko funtsak kontsulta guztien % 4,76 besterik ez ziren. Gainera, gaztelera ez ziren beste hizkuntza guztietako funtsen erabilpena kontsulta guztien %2,61era baino ez zen iristen (portzentaje horretan barneratzen zen sarritan eskatutako hiztegi elebidunen erabilera, halako liburuak zuzenean hartzeko moduan ez zeudelako). Are gehiago, euskarazko irakurketak guztien % 0,1 ziren.

Kontuak kontu, zer irakurtzen zen BFLn?


7. Grafikoan BFLn 1940ko hamarkadaren erdialdera arte egindako kontsulten urteko banaketa agertzen da, jakintza-arloka sailkatuta. Garai hartako erregistro estatistikoak Bruneten sailkapen-sistemari jarraitu zion, eta sistema horretan, Prentsa (Aldizkari Ofizialak barne) eta Entziklopedien datuak batera biltzen ziren. 1948tik aurrera, ordea, Sailkapen Hamartar Unibertsala (SHU) abian jarri zen gaikako estatistika-erregistroak antolatzerakoan (8. Grafikoa)[48]:

47 [*Biblioteca de la Excelentísima Diputación de Vizcaya*] [Eskuizkribua]: *registro de lectores* [*1962-1963*] (BFL, Signatura: VMSS-99). 1962ko abenduko eta 1963ko urtarrileko datuetan oinarrituta. Hortik datoz, halaber, gai honi buruz hurrengo lerroetan adierazitako gainerako zenbakiak.

48 1939an SHU sailkapen-sistema gisa arautu zen Estatuko Liburutegi Publikoetan *Orden*



7. Grafikoa: 1917-1944 bitarteko BFLren kontsultak, jakintza-arloka. Hilabeteko batezbestekoak.



8. Grafikoa: 1948-1966 bitarteko BFLren kontsultak, jakintza-arloka. Hilabeteko batezbestekoak.

Jakintza-arlo gehienek, gutxi gora behera, portaera-ereduren bat jarraitzen dute, batez ere lehen urteetan. Hala ere, 1930eko hamarkadaren hasieran, Historia eta, batez ere, Prentsa nabarmentzen hasi ziren, gerraren bezperan gainerako gaietatik argi eta garbi gailendu ziren arte. Urte haietako giro politikoak halako irakurketak errazten omen zituen. Gerraren ondoren, Prentsak indarra hartu zuen berriro, baina joera hori eten egingo zen berrogeiko hamarkadaren erdialdean. Estatistika-erregistroetan erabilitako sailkapen-sistema aldatu ondoren izandako jaitsiera ezin momentuz azaldu, datuak biltzeko irizpideak ere eraldatu ez baziren: izan ere, Orokortasunak gutxieneko mailara iritsi ziren urteak bat datoz Zuzenbideari buruzko funtsen kontsultetan ohiz kanpoko gehikuntza batekin. BFLn Aldizkari Ofizialek, aldizkako argitalpenen barruan, garrantzi handia izan zutela ohartarazi behar; izan ere, hainbat urtez berezko irakurgela egon zen halako funtsak kontsultatzeko. Nolanahi ere, etenaldi labur horren ondoren, Orokortasunek berrogeita hamarreko hamarkadaren hasieran galdutako hegemonia berriro berreskuratu zuten, eta hamarraldi horretan eutsi zioten.

Historia eta Literatura dira erabilera-maila handieneko beste jakintza-arlo batzuk[49], nahiz eta bakoitzak ibilbide desberdinik jarraitu. Historia gerra izan eta gero moteldu egin zen denboraldi batez, hirurogeiko hamarkadan -berriz ere- suspertzen hasteko, BFLn izandako kontsulten gorakadaren joera orokorrari jarraikiz, ala, akaso, diziplina horri buruzko ikerketak handitu izanaren ondorioz. Literatura, ordea, izugarri igo zen gerraren amaieran: berrogeiko hamarkadaren zenbait urtetan BFLren erregistro estatistiko altuenak eskaini zituen. Hala, liburutegi honek Bilboko irakurketa publikoko beste zentro batzuen gabeziak ordezkatu zituen. Hurrengo hamarkadan, ordea, zenbaki hauek moteldu ziren, gainerako irakurketa-zerbitzuek gatazkan galdutako baliabideak berreskuratzen hasi ahala, eta aldi berean,

de 29 de julio de 1939, estableciendo el sistema decimal para la clasificación de los fondos bibliográficos de las Bibliotecas públicas del Estado ebazpenaren esanetara (*Boletín Oficial del Estado*, 1939-VIII-6). Bibliotekek hiru hilabeteko epea izan zuten SHU erabiltzen hasteko. Lau urte lehenago, Darío de Areitiok sistema honen abantailak defendatu zituen (Darío de Areitio: *Biblioteca de la Excma. Diputación de Vizcaya: Breve resumen de las iniciativas y trabajos realizados que presenta al II Congreso Internacional de Bibliotecas y Bibliografía*, Bilbo, Moldiztegi Probintziala, 1935, 7. or.).

49 BFLn bizi izandako arazo eta portaerak, neurri handi batez, beste kasu batzuetan ere gertatu ziren. Euskal Herriko biblioteken gaineko ikerketa monografikoen faltan, behin behinean, beste adibide batzuetara jo behar: Portugaleko Évorako Liburutegi Publikoan, ondarearen gordailua zen zentro publiko batean, esate baterako, XIX. mendearen amaieratik XX. mendearen hasierara bitartean, Literatura eta Historiako funtsei buruzko kontsulten nagusitasuna, aisialdia edo ikastetxeko atazak betetzeko irakurleak, ezegonkortasun politiko garaietan erabileraren gorakada, funtsak kontserbatzeko arduradunen kezka, etab. Ik. Francisco Antonio Lourenço Vaz: "A leitura na Biblioteca Pública de Évora: um contributo para a história da leitura em Portugal (1887-1921)", *Anales de Documentación*, 19. lib., 2. znbk., 2016, 6-10. or. (https://digitum.um.es/digitum/bitstream/10201/51121/1/239671-932981-1-PB.pdf, 2021eko martxoaren 4a).

beste biblioteka berri batzuk irekitzean: batik bat -baina ez bakarrik- Bidebarrietako Udal Liburutegia.

Aurreko zenbakietan aldizkako argitalpenak eta monografiak bereizten ez direnez gero, lehenbizikoen garrantzia lausotu egiten da. Arazo hau arintzen saiatzeko, beste behin ere, aurrez erabilitako 1962/63ko irakurketen erregistro-liburura jo dugu[50]. Iturri horren arabera, aldizkako argitalpenak BFLn kontsultatutako funtsa guztien artean % 9,54 izan ziren. Hala ere, portzentaje horren erdia baino gehiago Aldizkari Ofizialek betetzen zuten (batez ere, Estatukoaren egunekoak), eta ondoren, urtekari estatistikoak eta direktorio profesionalak. Aldi berean, Prentsa gutxieneko erabilera-mailara jaitsi zen (aldizkako argitalpen guztien hamarrenera, hain zuzen ere). Era berean, iturri horri esker, irakurketen errealitatetik hurbilago dagoen ikuspegia lor daiteke, hilabeteko egoera-orrietan antzematerik ez dagoena.

Literaturari buruzko irakurgai guztiak ez ziren aisialdikoak izan. Idazle garaikideekin batera (Pérez Galdós, Cela, Casona, Gironella, Martín Descalzo, etab.) literatura klasikoaren gaineko kontsulta ugari izan ziren, bai gaztelaniaz (Cervantes, Lope de Vega, Calderón etab.), baita autore greko-latindarraz, eta antzinako edo hainbat hizkuntzatako edizio batzuk ere (ingelesa, frantsesa, etab.). Nolanahi ere, autore garaikideen irakurketetako batzuk irakaskuntzari lotuta egon ote ziren zalantzan jarriz gero, ikastetxeetan ohikoenak ziren idazleez gain, beste batzuk ere agertu zirela ohartarazi behar da: Agatha Christie edo Alberto San Cristobal, besteak beste, eta baita literatura satirikoa ere (XIX. mendeko edizioak barne, *Museo Cómico* izenburukoa, adibidez). Are gehiago: aisialdirako literatura ez da Atal Orokorrarekin soilik lotu behar: Euskal Atalaren erregistro askotan ere agertzen baita. Bertan literatura atal osoaren monografia guztien % 40,6koa da, eta Baroja, Trueba, Zunzunegui eta abarren lanak behin eta berriz eskatu ziren. Historiari zegokionez, bertan sartzen ziren bilduma genealogikoen kontsultak, hala nola García Carraffa anaien liburuei egindakoak (eskatutako guztiaren %2,63). Jakina: *Boletín de la estadística municipal* delakoan Zuzenbidearen jakintza-arloaren barruko erregistroetan askoz gai zabalagoak biltzen omen ziren, Gizarte Zientziak bezala defini daitezkeenak, non eskuliburu orokorrak ez ezik monografia espezializatuak ere sartzen ziren. Aldiz, Zientzia hutsetako lan gehienak eskuliburu akademikoz osatuta zeuden: Matematikaz, Fisikaz, Kimikaz eta abarrez. Arte Ederren gaineko erregistroez antzeko zerbait esan daiteke, *Summa Artis* askotan eskatu baitzen, eta Orokortasunetan ere, *Enciclopedia universal ilustrada europeo-americana* izenburuko lana etengabe erabili zelako.

50 [*Biblioteca de la Excelentísima Diputación de Vizcaya*] [Eskuizkribua]: *registro de lectores* [*1962-1963*] (BFL, Signatura: VMSS-99).

Aztertutako aldiaren azken urteetan LZK Bizkaian abian jartzearen ondorioak ere kontutan hartu behar dira. Irakurketa Zerbitzu Nazionalaren menpekoa zen LZKren bidez irakurketa publikoa bultzatu nahi zen[51]. Barneratutako esparru geografikoarekin bat etortzen, zentro horren egoitza BFLn lekutu zen, eta zuzendaritza teknikoa Carlos González Echegarayk bereganatu zuen. LZK 1954an sortu zen[52] eta bi urte geroago hasi zen funtzionatzen. 1956tik aurrera, lehendik zeuden hiru biblioteka barneratu ziren LZKn: Getxoko eta Durangoko udal bibliotekak, eta Bilboko Kultura hispanikoaren euskal erakundearen herri-liburutegia. Ondorengo urteetan LZKk garapen handia izan zuen, herri-liburutegi berriak, irakurketa-agentziak, etab. ireki baitziren:

Urtea	Bibliotekak	Irakurketa-agentziak[53]	Funtsen bilduma ibiltariak[54]	Liburukiak	Kontsultak	Irakurleak
1957	5	1	-	14.474	45.958	-
1958	5	1	5	17.526	59.650	-
1959	6	3	9	18.149	80.814	-
1960	6	3	9	23.414	88.856	76.855
1961	7	3	9	28.856	75.213	68.745
1962	10	3	7	35.261	92.792	82.211
1963	12	2	11	41.618	111.554	103.630
1964	14	3	12	46.990	134.586	121.394
1965	15	3	14	55.102	165.799	151.622
1966	1855	1	9	63.349	215.130	180.023

7. Taula: 1957/66 bitarteko Bizkaiko LZKren datu estatistikoak[56].

51 LZKek Estatuaren aholkularitza teknikoa jasotzen zuten, eta Estatuak zein zegokion lurraldeko Aldundiak finantzatzen zuten elkarrekin. Hasiera batean, badirudi Estatuak Aldundiak jarritako diru kopurua bikoiztu egiten zuela. Ik. Ana María Rodrigo Echalecu: *Las bibliotecas públicas durante el primer franquismo: entre la continuidad y la ruptura*, Madril, UCM, 2009, 42. or. (https://eprints.ucm.es/id/eprint/10351/1/bibliotecaspublicas.pdf, 2021eko martxoaren 4a). Hala ere, Bizkaian Aldundiaren ekarpenak Estatuarenak baino handiagoak izan omen ziren (cf. LZK: *Diez años*, 17. or.).

52 LZK: *Memoria del Centro Provincial Coordinador de Bibliotecas de Vizcaya*, Bilbo, [s.n.], 1957. 5. or.

53 Irakurketa-agentziak mailegu zerbitzua eskaintzen zuten biblioteka apalak ziren, LZKk emandako funts kopuru finko txikiak zituzten, eta jasotako irakurketak denboraldi batez erabili ahala, berritzen ziren. Denboraren poderioz, gehienak liburutegi publiko bihurtu ziren.

54 Ikastetxeei eta kultur edo jolas elkarteei aldi batez lagatzeko.

55 Honako liburutegi publikoak ziren: Areeta (Getxo), Astarloa (Durango), Kultura hispanikoaren euskal erakundea (Bilbo), Orduña, Allende Salazar (Gernika), Enrique de Vedia (Balmaseda), Alonso de Ercilla (Bermeo), Galdakao, Trapagaran, Sodupe (Gueñes), Orbe Kardinala (Ermua), Mungia, Erandio, Barakaldo, Txomin Aguirre (Ondarru), San Inazio (Bilbo), Sestao eta Azkue (Lekeitio).

56 Iturria: LZK: *Diez años*, 18. or. 1957tik bibliobus bat ere izan zen, Irakurketa Zerbitzu Nazionalarena, eta sei urtez funtzionatu zuen.

Horrenbestez, zeregin berri horien esleipenak eta Lege Gordailua abian jartzearen ondorioz izandako bildumaren hazkundeak BFLren izaera, berriz ere, berrikustera behartu zuten. Testuinguru horretan,1958an -Lege Gordailua indarrean sartu eta urte erdira-, Carlos González Echegarayk zera iragarri zuen:

> Se proyecta una reforma en el edificio que, una vez llevada a cabo, permitirá la instalación en el mismo de una Biblioteca Popular, cuyo contenido y horario de servicio sean adecuados a sus fines específicos […] Las reformas que se proyectan en el edificio para dentro de un breve plazo, suponen una ampliación en los servicios y una transformación de los mismos, de acuerdo con la complejidad que los tiempos actuales imprimen en las funciones de estos centros de cultura[57].

Esanak esan, une hartan iragarritako erreforma hura ez zen gauzatu, eta urte batzuk geroago (1965ean) ikasketa-gela bat irekitzera mugatu zen. Instalazio eta zerbitzuetan benetako aldaketa ez zen XXI. mendera arte iritsiko. Baina hori beste istorio bat da[58].

4. KONKLUSIOAK

Hasiera batetan Bilboko irakurketa publikoa sustatzea BFLren bigarren mailako eginkizuna izan zen. Bere jatorrizko bildumak, hastapenetako kokapenak eta arduradunen jokabideak ere BFLren izaera baldintzatu zuten. Gainera, BFL irakurketa publikoa Bilboko beste zentro batzuei esker garatzen hasi zen bitartean sortu zen. Hala ere, Hiribilduko analfabetismo-tasen etengabeko beherakada zela eta, BFLren irakurleen etengabeko hazkundeak bere etorkizuna baldintzatu zuen. Azken gorakada honek nabarmen gainditu zituen BFLren behin behineko aretoen erabileraren ahalbideak, garaiko instalazioen gabeziak begien bistan azaleratzen: hortaz, beste egoitza handiagoa behar zen, kokapen egokiago batetan, eta baliabide zein zerbitzu berriak eskaintzeko gaitasunik izango zituena. Egoitza berri batetan gauzatutako BFLren handitzeak haren gainean erabiltzaileen presioa areagotu zuen: urte gutxiren buruan, eta gerraosteko testuinguruaren eraginez, Hiribilduaren irakurketa publikoaren euskarri nagusi bihurtzera eraman zuen, garai bereko BFLren irakurketa-politikaren kontra talka egiten. Garaiko era guztietako gabezia eta baliabide falta zirela medio, Bilboko kultura-bizitza desagertu zen bitartean, BFL irakurketaz gozatzeko gordeleku bakarretakoa izan zen; mugapenak mugapen, bai zerbitzu-mailan (BFL

57 González Echegaray: "Archivo", 18-19. or.

58 Ana Ares Martínez: "Bizkaiko Foru Liburutegia eta aro digitala", in Teresa Agirreazaldegi Berriozabal (arg.): *Dokumentazioa eta eduki digitalen kudeaketa,* Euskal Herriko Unibertsitatea, 2010, 80-81. or.

ez zelako sekula ohiko herri-biblioteka bihurtu, mailegu-zerbitzurik ez izateagatik), baita kultura-giro itogarri orokorraren ondorioz.

Denborak aurrera egin ahala, gerraosteko lehen urteetan BFLk izandako protagonismo handia, planifikatuta baino ezinbestekoa izan zena, indarra galtzen joan zen, gainerako liburutegiena bizkortzen zen bitartean, azken hauei esker, irakurketa publikoa, beste behin, berpizten hasi zelako. Baina, berrogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean, LZK abian jartzean, bere zuzendaritza BFLn lekutzeak aukera berria suposatu zuen, Bilboko irakurketa publikoa ez ezik, Bizkaiko lurralde osokoa ere bultzatzeko. LZK eta BFL zuzendaritza tekniko berak elkartutako bi errealitate desberdin izan zirela ezin ukatu. Bizkaiko irakurketa publikoa suspertzeko erantzukizun nagusia LZKren esku egon zen, eta ez BFLn; baina lehenbizikoari zegokion garai berrietara egokitzeko liburutegi-politikak BFLn bete-betean eragin zuen. Horrexegatik BFLn ere, tarte batez, herri-bibliotekaren ohiko zerbitzuak -edota hauetako batzuk, behintzat- eskaintzea aztergai izan zen, nahiz eta, une hartan, aurreikusitako aldaketa horiek guztiak ezin abian jarri, eta hamarkada batzuk igaro ziren arte itxaron egin behar.

BIBLIOGRAFÍA

Areitio, Darío de: *Biblioteca de la Excma. Diputación de Vizcaya: Breve resumen de las iniciativas y trabajos realizados que presenta al II Congreso Internacional de Bibliotecas y Bibliografía*, Bilbo, Moldiztegi Probintziala, 1935.

Ares Martínez, Ana: "Bizkaiko Foru Liburutegia eta aro digitala", in Teresa Agirreazaldegi Berriozabal (arg.): *Dokumentazioa eta eduki digitalen kudeaketa,* Euskal Herriko Unibertsitatea, 2010, 79-84. or.

Beascoechea Gangoiti, José María [et al.]: *La consolidación de la metrópoli de la Ría de Bilbao,* Bilbo, Fundación BBVA, 2009.

Bilbo. Udala: *Boletín de la estadística municipal de Bilbao.* [Bilbo: Udala], 1917-1968.

Chapa, Álvaro: *La vida cultural de la villa de Bilbao, 1917-1936*, Bilbo, Udala, 1989.

Davila Balsera, Pauli [et al.]. "Los procesos de alfabetizacion y escolarizacion en Euskal Herria, 1860-1990", *Cuadernos de Sección. Educación*, 7, 1994, 63-99. or.

Echegaray, Carmelo de: "La Biblioteca de Sagarmínaga", *Euskal-Erria: revista bascongada*, 36, 1897, 481-487. eta 513-520. or.

Estatuko Liburutegi Publikoak*: Memoria del año 1981,* [Madril], Liburutegien Zuzendariordetza Nagusia, Biblioteken Azterlanen Atala, [1982].

González Echegaray, Carlos: "Archivo y Biblioteca Provincial", *Vizcaya,* 10, 1958ko lehen seihilekoa, 17-23. or.

Guerra, Juan Carlos de: "La Biblioteca de Vizcaya", *Propiedad y construcción*, 3, 16 znbk, 1924-III-31, 1-2. or

Liburutegien Zentro Koordinatzailea: *Memoria del Centro Provincial Coordinador de Bibliotecas de Vizcaya*, Bilbo, [s.n.], 1957.

Liburutegien Zentro Koordinatzailea: *Diez años de actividades (1956-1966)*, Bilbo, Bizkaiko Aldundia, 1968.

Lourenço Vaz, Francisco Antonio: "A leitura na Biblioteca Pública de Évora: um contributo para a história da leitura em Portugal (1887-1921)", *Anales de Documentación*, 19. lib., 2. znbk., 2016, 1-12. or.

Llobet Domènech, Jordi: *Lecture i biblioteques populars : model de col.lecció i lectura a les biblioteques populars de la Mancomunitat de Catalunya: 1918-1922*, Bartzelona, Unibertsitatea, 2008.

Mañá, Teresa: "Les biblioteques populars de la Mancomunitat: un projecte polític i un projecte bibliotecari", *Cercles: revista d'història cultural*, 13, 2010, 44-60. or.

Martínez Rus, Ana: *La política del libro sobre la Segunda República: socialización de la lectura*, Madril, UCM, 2001.

Olaran Múgica, Clotilde: "Los retos de la Biblioteca Foral de Bizkaia ante la coyuntura bibliotecaria actual", *Bidebarrieta,* 5, 1999, 57-72. or.

Olaran Múgica, Clotilde eta González Vesga, José Manuel: *El Consulado de Bilbao: noticias históricas y bibliográficas en torno a su archivo*, Zarautz, Manuel de Larramendi Institutu Bibliografikoa, 2012.

Rodrigo Echalecu, Ana María: *Las bibliotecas públicas durante el primer franquismo: entre la continuidad y la ruptura*, Madril, UCM, 2009.

Urcelay, Santiago de: "Las Bibliotecas públicas en Vizcaya," in Valentín Reparaz Olagüe (arg.): *Vizcaya a la mano,* Bilbo, Bilbao Aldizkaria, 1930, 21-24. or.